

2. MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Guk denetariko bezeroak izango ditugu, merkatu masiboa izango da; adina, sexua eta bestelakoak kontuan izan gabe, eskuil bakoitza pertsona bakoitzaren ahara egokituta egongo delako. Adibidez, pertsona batek ahoko gaixotasun periodontal batenbat badauka, orduan eskuilaren ezaugarriak (gogortasuna, presioa, mugimenduak, irrigazioa etab.) desberdinak izango dira aho osasuntsu bat daukan batekin alderatuta. Horretaz gain, gure produktuaren berezitasunik handiena ezintasuna daukaten pertsonentzat bideratuta izango dela da, izan ere, beraientzat egokitutako eskuila daukagu gure eskuetan. Konturatu gara merkaturan ez zaiela ahoko higienearen atalean kontutan hartzen, produktu gehienak ez daudelako beraientzako egokituta. Higiene produktu denak eraginkorrak izateko eskatzen dute mugimendu zehatz batzuek eta teknika zehatz batzuk jende askok zailtasunak dituztenak aurrera eramateko. Beheko notizian ikusi dezakegun bezala, ezintasuna duten pertsonen ahoko patologia pairatzeko joera handiagoa daukate. Horren arrazoi nagusia mugikortasun arazoak edukitzea izan daiteke, edota egoerari garrantzia ez ematea, gizarteko jende gehienak egiten duen bezala. Hori dela eta, Espainiako biztanleria gehienak ahoko patologia pairatzen ditu, eta urte honetako datuak aztertzen baditugu, ikusiko dugu ahoko gaixotasunetatik ohikoena txantxarra dela, herrialdeko 10 pertsonatik 8k izanez.

**CONSEJO DENTISTAS**
Asociación Española de Odontólogos y Estomatólogos

Alcaldía Calleja 79, 2.
28009 Madrid

Astakerentetik ostiraleria 9:00 - 17:00
Bulego orduak

914 264 410
Telefonoa

f X @

21NOTICIAS
Información y actualidad de Galicia, España e Internacional

Q Aa 1 | 0

GALICIA - ESPAÑA - INTERNACIONAL - DEPORTES - POLÍTICA - ECONOMÍA - OPINIÓN - CULTURA -

TECNOLOGÍA - SECCIONES -

Kontseilu Nagusia - Dentistak - Informazio publikoa - Komunikazioa - Kontaktuak

f X @

Haziera - Komunikazioa - Prentsa Oronak - Berriak - Ahozko Osasuna - Ezintasunen Bat Duten Pertsonen Ahoko Patologia Pairatzeko Joera Handiagoa Dute

Ezintasunen bat duten pertsonen ahoko patologia pairatzeko joera handiagoa dute

2024/12/03 | Kategoría: Aho osasuna

3 de diciembre de 2024
Día Internacional de las Personas con Discapacidad



- Beren gaitasun intelektualen eta mugikortasunaren arabera, paziente hauek zaintzale baten laguntza behar dute aho-higieneari behar bezala egiteko.
- Hortz klinikako langile guztiek ezintasunen bat duten pertsonen zaintzan parte hartu behar dute, hitz lasaigarriak eta ohots-dolitu lasaia erabiltz arretzalea ekiditeko.

Kategoriak

- Kanpainak
- Iragarkiak
- Espainiako Hortz Fundazioa
- Hemeroteka
- Intrusio profesionala
- Berriak
- Politika
- Sariak
- Argitalpenak
- Osasun-iragarkia
- ahoko osasuna

8 de cada 10 personas han tenido caries, según el Barómetro de la Salud Bucodental en España 2024

POR REDACCIÓN NACIONAL | PUBLICADO 20/03/2024

COMPARTIR



Shiny brush oso aproposa da pertsona hauentzako, ez dutelako esfortzurik egin behar, hau da, eskuilak berak bakarrik egiten ditu mugimenduak. Bezeroaren lan bakarra eskuila ahoan kokatzea izango da hortz pasta jarri ondoren, eta geroago aipatuko dugun ahozko funtzionamenduak oso lagungarriak izango dira.

Beste alde batetik, ekonomiaren arloan sartuta, jakinaren gainean gaude Espainiako egoera larritaz, eta ohartu gara jende askok ez daukala baliabiderik aho eta hortzetako higienarako produktuak erosteko. Hori dela eta, gure helburua herrialde honetako jendearen ahoko osasuna bermatzea dela oinarritzat hartuta, gure produktua prezio eskuragarrian ipintzea pentsatu dugu, horrela produktua guztientzat lorgarria izateko. Azkenean produktua garestia izatean, erosle gutxiago izango ditugu eta beraz, bezero gutxiago. Ezinezkoa izango da enpresa bezala haztea bezerorik gabe, jakinda beraiek direla enpresa baten oinarria. Hortaz, hasiera batean pentsatu dugu Euskadi mailan argitaratzea gure produktua, eta ikusten badugu gure produktua indarra hartzen doala, orduan Espainia mailan bideratuko dugu. Saiatuko gara ahal dugunik eta prezio baxuenean ipintzen edonork erosi ahal izateko eta gure helburua, pertsona ororen aho osasuna hobetzea lortuko dugu.

Hau guztia kontutan izanda, goazen ba gure osasunari garrantzia ematera, heldu da garaia. Esaldi famatuak dion bezala, hobe da prebenitzea osatzea baino.